

# **Kultur aniztasuna izango du ardatz Bergaran eskola publikoaren festak**

## **IGANDEAN OSPATUKO DA JAI HONEN 18. EDIZIOA ETA 11.00ETATIK AURRERA HAINBAT EKITALDI IZANGO DITU**

DONOSTIA. Kultur aniztasuna izango da igandean Bergaran izango den Euskal Eskola Publikoaren 18. Jaiaren ardatza. Gune zehatz bat izateaz gain, jai gune guztietan banatuko baitira mota honetako jarduerak gastronomia, erakusketa, tailer, kontzertu eta kale animazioaren bidez.

Hala, Paraguai, Maroko, Errusia eta Bulgariako jaki tipikoak dastatzeko aukera izango dute bertaratzen direnek, beste batzuen artean, etorkinen elkarteei esker. Hauen argitalpenak ezagutzeko aukera ere izango dute, batez ere hezkuntza alorrekoak.

*Guztia Obatu Euskal Eskola Publikoari* lemapean antolatu duten festan, eskola publikoa bera kultur aniztasun horren isla den neurrian. Eta gero eta etorkin gehiago hezitzen dituen arren, egun eskola publikoa dela "gehien euskalduntzen duena" nabarmendu zuen Ehige koordinatzaile Ana Izagirrek.

Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Elkarteko (Ehige) presidente Imanol Zubizarretak atzo azaldu zuenez, zortzi gune izango dira ekitaldiz beteta Bergarako kaleetan goizeko 11.00etatik aurrera, ordu horretan inauguratuko baitute festa San Martin Eskolan. Hortik aurrera, besteak beste, Betizuen diskofesta eta jolasak izango dira, tailerrak eta baita errepideen inguruko hezkuntzari buruzko ikastaroa ere. Dantza eta musika ez dira faltako, bai gazte gipuzkoarren eskutik eta baita Colombia, Chile eta Senegaletik etorritako taldeei esker. 18.00etan erromeria ere izango da Bergarako kaleetan jai egunari amaiera emateko.